

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

90

1047/2024 EBAZPENA, abenduaren 11koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariarena, zeinaren bidez argitara ematen baita Instalazioen Ataleko Buru lanpostua izendapen askez betetzeko deialdia, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiko Ekonomiako eta Finantzako Zuzendaritzan, Azpiegituren Zuzendariordetzan, Instalazioen eta Ekipamenduen zerbitzuan.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiko Ekonomiako eta Finantzako Zuzendaritzako Instalazioen Ataleko Buru lanpostua hutsik dago, Azpiegituren Zuzendariordetzan, Instalazioen eta Ekipamenduen Zerbitzuan. Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikuluan, Osakidetzako lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezartzen denaren arabera, Giza Baliabideen Zuzendaritza honek erabaki du deialdi publikoa egitea, lanpostu hori izendapen askez betetzeko. Hona hemen horretarako atxikipeak eta oinarriak:

OINARRIAK

Lehenengoa.– Lanpostuaren atxikipena.

Atxikipena: Osakidetzako Zuzendaritza Nagusia, Ekonomiako eta Finantzako Zuzendaritza, Azpiegituren Zuzendariordetza, Instalazio eta Ekipamenduen Zerbitzua.

Lanaldi zatitua: Vitoria-Gasteiz.

Hizkuntza-eskakizuna: 3. HE (Derrigortasun-data: 2024-02-22).

Bigarrena.– Lanpostuaren eginkizunak.

2.1.–Azpiegituren zuzendariordeari jakinaraztea instalazioak gauzatzeko egindako aurrerapenak.

2.2.– Instalazioei buruzko plan estrategikoak gauzatea (instalazio elektrikoak berritzea, argiztapen-sistemak berritzea, ekoizpen termikoko instalazioak berritzea...).

2.3.– Erakunde sanitario integratuekin harremanetan egotea, egon daitezkeen beharrak hautemateko eta lehenesteko.

2.4 – Instalazioetan Jarduteko Urte Anitzeko Plana prestatzea/eguneratzea eta dagokion instalazioen aurrekontua zehaztea.

Hirugarrena.– Parte hartzeko baldintzak.

Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute baldintza hauek betetzen dituztela egiaztatzen dutenek:

a) Osakidetzako edozein zerbitzu-erakundetan, estatutupeko langilea, funtzionarioa edo langile lan-kontratudun finkoa izatea; eta plaza jabetzan edukitzea A1/A2 lanbide-taldean.

b) Gutxienez 3 urteko lan-esperientzia izatea administrazio publikoan, A2 lanbide-taldean.

c) Industria-ingeniariaren titulu akademikoa edo egungo baliokidea izatea.

d) Uztailaren 186/2005 19 Dekretuan eta Osakidetzako Euskara Planean ezarritako gainerako betekizunak.

Laugarrena.– Kontuan hartuko diren merezimenduak.

– Hizkuntzen ezagutza: ingelesa – 2. hizkuntza-eskakizuna.

– Instalazio mekanikoen inguruko ezagutza izatea.

– Instalazio elektrikoen inguruko ezagutza izatea.

– Eraikin sanitarioetan (osasan-zentroak eta ospitaleak) dauden bestelako instalazioen inguruko ezagutza izatea.

– Esperientzia izatea diziplina anitzeko lantaldeen kudeaketan.

– Esperientzia izatea administrazio-espedienteen kudeaketan.

Halaber, lanpostu hau betetzeko interesgarria izan daitekeen eta balioa erants dezakeen edozein merezimendu aurkeztu ahalko da.

Bosgarrena.– Euskararen ezagutza.

Osakidetzan Euskararen erabilera normalizatzeko martxoaren 18ko 67/2003 Dekretuak eta berau garatzen duten arauak xedatutakoaren arabera egingo da balorazioa.

Seigarrena.– Eskabideak aurkezteko epea eta modua.

Interesdunek Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiko Giza Baliabideen Zuzendaritzara bidali beharko dituzte eskabideak. Horretarako, 15 egun balioduneko epea izango dute, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan xedatzen den moduan ere aurkeztu ahalko dira.

Interesdunek Zuzendaritza Nagusiko Giza Baliabideen Zuzendaritzara bidali beharko dute eskabidea (Araba kalea 45, 01006 Vitoria-Gasteiz), datu pertsonal guztiekin eta Curriculum Vitae dokumentatuarekin batera.

Dokumentazioak honelakoa izan behar du:

– NANaren, pasaportearen edo gidabaimenaren fotokopia konpultsatua.

– Funtzionario edo estatutupeko langile izendapenaren fotokopia konpultsatua edo, hala badagokio, lan-legepeko kontratudun finkoa dela egiaztatzen duen agiriarena.

– Baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen dokumentazioaren fotokopia konpultsatua.

– Baloratu beharreko merezimendu guztien fotokopia konpultsatua.

CVaren aplikazio informatiko korporatiboan behar bezala baliozkotuta dauden edukiak ez dira ziurtatu behar izango aurreko paragrafoan ageri den moduan; hala ere, eskatzaileak horren berri eman behar du eskaeran.

Zazpigarrena.– Balorazio Batzordea.

Balorazio Batzorde bat eratuko da, eta batzordeburua Giza Baliabideen Hautaketako eta Horniketako zuzendariordea edo hark eskuordetzen duena izango da. Hauexek izango dira Balorazio Batzordeko kideak: Ekonomiako eta Finantzako zuzendaria, Azpiegituren zuzendariordea eta Giza Baliabideen Zuzendaritzako Goi-mailako Teknikari bat (azken hura idazkaria izango da).

Batzordeak, eskabideak baloratu ondoren, eginbide osagarriak gauzatzea erabaki dezake; eta izangaiei horren berri emango die.

Izangaien balorazioa egindakoan, eta berau kontuan hartuta, dagokion izendapena egiteko proposamena aurkeztuko da. Lanpostua hutsik uztea proposa dezake epaimahaiak, betiere aurrez txosten arrazoitua eginez, baldin eta izangaiek betetzen ez badituzte bete beharreko baldintzak.

Akta egingo da Batzordea biltzen den bakoitzean. Bertan zerrendatuko dira aurkeztutako izangaiak, gauzatutako eginbide osagarriak (halakorik balego), eta lanpostua haietako bati esleitzeko edo deialdia bete gabe uzteko kontuan hartutako arrazoiak.

Zortzigarrena.– Hautaketa-prozedura.

Ezin izango dira baloratu, inolaz ere, deialdia EHAA-n argitaratzen den egunean eskuratu gabe dauden merezimenduak, ez eta eskaerak aurkezteko epea amaitu aurretik behar bezala alegatu eta egiaztatu ez direnak ere.

Bederatzigarrena.– Prozedura amaitzeko Ebazpena.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren ebazpenaren bidez emango zaio amaiera honen bitartez hasitako prozedurari (lanpostua esleitzea edo hutsik uztea), eta ebazpen hori Osakidetzako intranetean eta webgune korporatiboan argitaratuko da. Ebazpen horrek EHAA-n argitaratzen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak, bertan besterik xedatu ezean.

Hamargarrena.– Ebazpen honen aurkako errekurtsioak.

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko abenduaren 11.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendaria,
JOSUNE RETEGI ORMAZABAL.